

GERARD MANLEY HOPKINS (1844-1889)

Gerard Manley Hopkins 1844.eko uztaillaren 28an jaio zan, Stratford'en (Essex), famili Goi-anglikar eta eukitsuaren barruan. Bederatzi neba-arrebetatik zaarrena, eta jamili eder-senez jantzian gorengoa. Ruskin'en teknika eta izadi-ikustea maite ebazan, eta bere anai bi izan ziran lez, asikeran margolaria izatea uste izan eban. Musika zaletasuna be nabaria zan.

Balliol College'en ikasi ebazan klasikak (1863-1867). Oxford'eko mobimentu barruan leenengo, eta gero J.H. Newman'en laguntzaz, Eleiza Katolikuaganako bidea egin eban (1866). Urte bi geroago Jesuita nobiziadua asi eban. 1870-1873 bitartean filosofia ikasteari ekin eutson. Urtebetez erretorika irakatsi, eta 1874-1877 artean teologia izan eban ikasgai. Azken urte onetan izan zan apaiz egiña. Jarraian, 1881.era arte, geien baten parroki lana burutu eban London, Oxford, Manchester, Liverpool eta Glasgow'eko langille eta barrengo auzo txiroen artean. Irakasle be izan zan urteren baten. 1882.ean gertakuntza bereziaren ondoren bein-betiko botoak egin ebazan Jesuita Lagundian. 1882-1884 bitartean latera eta grekera irakasle. 1884-1889 artean grekera eta latera irakatsi ebazan Dublin'eko Unibersitate ikastetxean, Newman'ek sortutakoan. Batera Irlandako Errege Unibersitateko azterketa lanen aztertzaile. Lur jota izten eban lan aspergarri astuna. 1889.ean tifus sukarrak artu eban, eta geiso onen ondorioz il zan 1889.eko ekaiñaren 8an.

Bere olerkiak 1918.ean argitara ebazan Robert Bridges'ek, olerkari eta adiskideak. Ordura arte ez zala sasoi egokia eritzi eutson oni Hopkins'en olerkien barritasunak onartuak izan eitez. Agertu ziranean, oster, modernismoaren aldia, Hopkins emerretzigarren gizaldiko benetako olerkari eta modernismoaren aurrelartzat txalotua izan zan. Au anakronikoa da izan, baiña, neurritz ulertuta, egitez izan eban eragiñik modernismo angliarean, adierazpide barriak billatzeko askatasunean.

Leenengo olerki eragiña Keats eta Prerrafaelistengandik artu eban. Azal apaindurazkoa. Gero, eldutasunean, iru iturri billatu ebazan olerkiaren adierazpidearen sustraietaz jabetu naiean. Leenengo, gaelikoa ikasi eban: onetatik bertso lerro barruko oskidetasuna eta aliterazioñoa batez be ikasi ebazan, leendik be itz bakotxaren eta itz jarraien doiñua beretzat oso garrantzitsua zanez. Bigarren, Anglosaxona ikasi eban, "eritmo saltariaren" teoria baieztatzeko, au da, benetako olerki neurria ez datzala silaba kopuruan, azentoetan baiño. Irugarren, aldiko izkuntzalari jokera baten barruan, "ingles garbia" nai eban, lateratiko eta frantzes itzak alboratuz, orrela izkera adierazgarriagoa eta konkretoagoa zalakoan.

Azkenengo olerkaik (1885-1889) urriagoak eta sendoagoak dira. Alan be, eta bere poetikan goi-arnasa, inspiraziñoa, ezinbestekoa izan arren, benetako olerkia bereizten dauana, beti be baliapideak (itzaren doiñuak) garrantzi andia dabe bere olerkian.

Jakiña danez, bere poetikan "inscape" eta "instress" ideiak oso garrantzizkoak dira. Leenengoak izaki bakotxaren barru-forma esan nai dau: barru-forma ori lortzen dauanean eta olan agertzen, bere ederra bizi eta erakusten dau. Bigarrenak ("instress") errealdade arek gudan dauan eragiña esan nai dau, eta gure barruak a lortzeko egin bear dauan aalegiña.

Gogo eta izakera bikain eta minbera, espirituzko eta beste samiañak jasan bear izan zituan. Izadiaren ederra maitatu eta abesten ebala, samin oneen artean olerkirik onenak ondu ebazan.

Ikerlariak "illunpeko olerkiak" (beste izen batzuen artean) deituriko sei olerkiak itzultzen ditut. 1885 ingurukoak dira, eta aldiz urren jarriko dira, nai ta jarraia ez ziorra izan. Beste olerki bat, izadi maitasunaren agergerri. Azken urteko (1889) olerki bat, gaiez "illunpeko olerkiei" lotua. Eta bere azkenengo olerkia, Robert Bridges adiskideari zuzendua: olerkaria zazpi aste geroago il zan.

Itzulpenean pentsamentu poetikoa zaintzen aalegindu naz, neurria eta oskidetasuna itziz.

Lagungarriak izan jataz *Poems and Prose of Gerard Manley Hopkins*, selected with an introduction and notes by W.H. Gardner. (Penguin books). London 1976; Manuel LINARES MEGIAS, *Gerard Manley Hopkins. Poemas completos* (Bilbao, 1988); Harold BLOOM (ed.), *Modern Critical Views. Gerard Manley Hopkins* (New York, New Haven, Philadelphia, 1986), batez be Paul L. Mariani'ren lana: *The Dark Night of the Soul*, 51-76 or.; Norman H. MACKENZIE, *A Reader's Guide to Gerard Manley Hopkins* (London, 1981).

Luis Arostegi

[No worst,...]

No worst, there is none. Pitched past pitch of grief,
 More pangs will, schooled at forepangs, wilder wring.
 Comforter, where, where is your comforting?
 Mary, mother of us, where is your relief?
 My cries heave, herds-long; huddle in a main, a chief-
 Woe, world-sorrow; on an áge-old anvil wince and sing-
 Then lull, then leave off. Fury had shrieked "No ling-
 ering! Let me be fell: force I must be brief".

O the mind, mind has mountains; cliffs of fall
 Frightful, sheer, no-man-fathomed. Hold them cheap
 May who ne'er hung there. Nor does long our small
 Durance deal with that steep or deep. Here! creep,
 Wretch, under a comfort serves in a whirlwind: all
 Life death does end and each day dies with sleep.

[Txarrena ez...] (1884-1885?)

Txarrena ez, ez dago txarrenik. Samin-amillean jaurtirik,
oiñaze geiagok nabe, oiñazetan aurre-ikasia, ankerrago itoko.
Pozkille, non, non da zure poztasuna?
Maria, geure ama, non da zure gozagarria?

Nire antsiak jasoten, artalde-bekada; erosta goren nagusi baten pillatzen
dira, mundu-atsekabe baten; antxiñako ingude baten saltu dagie ta kanta-
gero ixildu, gero alde. Garrasi Sumiñak: "Ez da luzapenik!
Naiten gogorra: bearrez bear dot laburra izan".

Oi adimenak, adimenak mendiak daukaz; amildegiak,
izugarriak, zutak, iñok asma-bageak. Arei zingil oratu
beie iñoz an dindil izan ez danak. Ezta gure iraute laburrak ez dau
luzaro pendoiz edo leize atan irauten. Eutsil Egin narraz,
zoritxarreko, beean aize-zurrunbilloa dozu pozbide: bizi
dana eriotzak dau amaitzen eta egun oro loaz da ilten.

(Carrion comfort)

NOT, I'll not, carrion comfort, Despair, not feast on thee;
 Not untwist -slack they may be- these last strands of man
 In me ór, most weary, cry I *can no more*, I can;
 Can something, hope, wish day come, not choose not to be.
 But ah, but O thou terrible, why wouldst thou rude on me
 Thy wring-world right foot rock? lay a lionlimb against me? scan
 With darksome devouring eyes my bruised bones? and fan,
 O in turns of tempest, me heaped there; me frantic to avoid thee and flee?
 Why? That my chaff might fly; my grain lie, sheer and clear,
 Nay in *all that toil, that coil*, since (*seems*) I kissed the rod,
 Hand rather, my heart lol lapped strength, stole joy, would laugh, cheer.
 Cheer whom though? The hero whose heaven-handling flung me, fúot tród
 Me? or me that fought him? O *which one?* is it each one? That night, that year
 Of now done darkness I wretch lay wrestling with (my God!) my God.

(Aratustelezko pozbidea) (1885; 1887.ean benikusia)

Ez, ez dot, aratustelezko pozbide, Etsipen, ez janketarik zugaz egingo;
ezta biurtu be -mengelak arren- nire azken giza-zarpillok
edo, zearo unaturik, garrasi egingo "ezin dot geiago". Aal dot,
aal dot zerbait, itxaron, eguna eltzea nai, ez-izatea ez autu.

Baiña ai, baiña oi zuk ikaragari orrek, zergaitik gogor
jaurtitzen deustazu zure ostiko mundu-biurtzaillea, leoi-erpa jarten,
begi ireslez nire azur eioak aztertzen?, eta aizeparan erabilten,
oi ekatx zurrumbilloetan, ni pillatuta, ni zugarik alde ta iges nairik zoratuta?

Zergaitik? Loiak egaz dagien; nire garoa gelditu, argi ta garbi;
lerren, zisku guzti atan, (antza) zarteari musu emotean, eskuari, obeto,
nire biotzak, beitu!, indarra xurgatu eban, poza irabazi, barre ta txalo gura.

Nor baiña txalotu? Esku zeru-eroaillez astintzen, oiñaz zapaltzen
ninduan gurena?, ala aregaz burrukan nengian au? Oi zein?, biak? Orain joandako illunpezko
gau atan, urte atan, zoritxareko onek, burrukan nengian (ene Jainko!) ene Jainkoagaz.

[I WAKE...]

I WAKE and feel the fell of dark, not day.
What hours, O what black hours we have spent
This night! what sights you, heart, saw, ways you went!
And more must, in yet longer light's delay,

With witness I speak this. But where I say
Hours I mean years, mean life. And my lament
Is cries countless, cries like dead letters sent
To dearest him that lives alas! away.

I am gall, I am heartburn. God's most deep decree
Bitter would have me taste: my taste was me;
Bones built in me, flesh filled, blood brimmed the curse.

Selfyeast of spirit a dull dough sours. I see
The lost are like this, and their scourge to be
As I am mine, their sweating selves; but worse.

[Itzartu ta...](1885)

Itzartu ta illunaren izua dot asmatzen, ez eguna.
Zelako orduak, oi zelako ordu baltzak igaro doguzan
bart! Zelako ikuskizunak, biotz, ikusi dozuzan; ze bidez ibilli!
Eta geiago bear, argi luzapen oindiño luzeagoan.

Testiguagaz diñot au. Baiña orduak esatean
urteak esan nai ditut, bizitzea. Eta nire erosta
konta-eziñezko negarrak dira, ai! alde egiñik bizi dan
kutun ari bialduriko eskutitz illak lako negarrak.

Beaztun naz, biotz-erre. Jainkoaren erabagi guztiz sakonak
mingotsa dasta erazoten eustan: neu nintzan nire dasta;
nire azurrak eratu, aragia bete, odola gaiñeztu dau madarikapenak.

Norbere gogo-legarrak garraztu egiten ore astuna. Galduak
onelako dirala dakust, eta areen zigorra, neu neuretzat lez,
eurak dirala euren izate izerdi-likinean; baiña txarrago.

[To seem]

To seem the stranger lies my lot, my life
Among strangers. Father and mother dear,
Brothers and sisters are in Christ not near
And he my peace/my parting, sword and strife.

England, whose honour O all my heart woos, wife
To my creating thought, would neither hear
Me, were I pleading, plead nor do I: I wear-
y of idle a being but by where wars are rife,

I am in Ireland now; now I am at a third
Remove. Not but in all removes I can
Kind love both give and get. Only what word
Wisest my heart breeds dark heaven's baffling ban
Bars or hell's spell thwarts. This to hoard unheard,
Heard unheeded, leaves me a lonely began.

[Arrotza emotean...] (1885-1886)

Arrotza emotean datza nire zoria, nire bizitza
arrotzen artean. Aita eta ama maiteak,
neba-arrebak ez jataz Kristogan ur,
eta a, nire bakea/nire banaketa, ezpata eta burruka.

Inglaterrak, beraren oorea oi biotz guztiaz billatzen dodala,
nire gogo sortzailearen emazteak, ez leuskit entzungo,
arren eskatuko baneu, ezta ez dot arrenik egiten: aspertuta bakarrik
alperriko izateaz gudak ugari diran lekuan,

Irlandan naz orain; irugarren aldentzea dot orain.

Aldentze guztietan artu eta emon daiket bai
maitasun txeratsua. Baiña itzik jakintsuena,

nire biotzaren janaria, zeruaren debeku illun uts-eragileak
eragozten dau edo infernuaren araoak galerazten. Ez-entzun
egiten jakon batze onek, arretabako entzuteak, "asi nintzan" ituna deust izten.

[MY own heart...]

MY own heart let me more have pity on; let
 Me live to my sad self hereafter kind,
 Charitable; not live this tormented mind
 With this tormented mind tormenting yet.

I cast for comfort I can no more get
 By groping round my comfortless, than blind
 Eyes in their dark can day or thirst can find
 Thirst's all-in-all in all a world of wet.

Soul, self; come, poor Jackself, I do advise
 You, jaded, let be; call off thoughts awhile
 Elsewhere; leave comfort root-room; let joy size
 At God knows when to God knows what; whose smile
 's not wrung, see you; unforeseen times rather -as skies
 Betweenpie mountains- lights a lovely mile.

[PATIENCE,...]

PATIENCE, hard thing! the hard thing but to pray,
 But bid for, Patience is! Patience who asks
 Wants war, wants wounds; weary his times, his tasks;
 To do without, take tosses, and obey.

Rare patience roots in these, and, these away,
 Nowhere. Natural heart's ivy, Patience masks
 Our ruins of wrecked past purpose. There she basks
 Purple eyes and seas of liquid leaves all day.

We hear our hearts grate on themselves: it kills
 To bruise them dearer. Yet the rebellious wills
 Of us we do bid God bend to him even so.

And where is he who more and more distils
 Delicious kindness? - He is patient. Patience fills
 His crisp combs, and that comes those ways we know.

[Neure biotzaz...] (1885-1886)

Neure biotzaz errukitsuago izan naiten;
aurrerantzean onberago izan naiten neure buru triste onegaz,
maitetsuago; ez bedi gogo oiñazetu au bizi
gogo oiñazetu onegaz oindiño oiñazetan.

Nire atsekabe inguruan aztaka ezin aurkitu neiken
pozbidearen billa nabil, ez begi itsuak
euren illunpean eguna aurkitu daikkeen baiño geiago edo egarriak
egarriaren asebetea urezko mundu guzti batean.

Arima, izan zcu; zatoz, iñorez gixajo ori, neuk diñotsut,
nekatuta be, bizi; jaurti une baten burutapenak alde batera,
itzi poztasunari sustraien sorgua; azi bedi zure poza

Jainkoak dakian noizean Jainkoak dakian zerera; aren irribarrea
ez da beartzen, zeu arduratuz, ustekabe obeto -zeruak
mendi bitartea margotzean lez- argitzen dau ak bide-zati lilluragarria.

[Eroapena...] (1885-1886?)

Eroapena, gauza gatxa! Gauza gatxa eskatzea be,
aregaitik leiatzea be, eroapena! Eroapena eskatzen dauanak
guda nai dau, zauriak; aspergarriak bere orduak, bere eginkizunak;
norbera ukatzea, zartadak artzea, eta obeditzea.

Eroapen bakana oneetan sustraitzen da eta oneek barik
iñon be ez. Biotzeko berezko untzurri, eroapenak estaltzen
gure leengo asmu ondatuen ondakiñak. An ditu berotzen
purpurazko begiak eta orri ixurki itsasoak egun guztian.

Geure biotzak entzuten doguz karraska: il dagiz
geiago maillatzeak. Baiña gure naimen biurriak
Beragana makur daizala alan be eskatzen deusagu Jaunari.

Eta non da geroago ta geiago ontasun gozoa
dariona? Eroapentsua da. Eroapenak betetzen ditu
aren ezti-orrazi arroak, eta dakiguzan bideez dator.

[Ashboughs]

Not of all my eyes see, wandering on the world,
 Is anything a milk to the mind so, so sighs deep
 Poetry tó it, as a tree whose boughs break in the sky.
 Say it is áshboughs: whether on a December day and furled
 Fast ór they in clammyish lashtender combs creep
 Apart wide and new-nestle at heaven most high.
 They touch heaven, tabour on it; how their talons sweep
 The smouldering enormous winter welkin! May
 Mells blue and snow white through them, a fringe and fray
 Of greenery: it is old earth's groping towards the steep
 Heaven whom she child us by.

[Thou art indeed just, Lord...]

*justus quidem tu es, Domine, si disputem tecum;
 veruntamen justa loquar ad te: Quare via
 impiorum prosperatur etc.*

Thou art indeed just, Lord, if I contend
 With thee; but, sir, so what I plead is just.
 Why do sinners' ways prosper? and why must
 Disappointment all I endeavour end?
 Wert thou my enemy, O thou my friend,
 How wouldst thou worse, I wonder, than thou dost
 Defeat, thwart me? Oh, the sots and thralls of lust
 Do in spare hours more thrive than I that spend,
 Sir, life upon thy cause. See, banks and brakes
 Now, leavèd how thick! laced they are again
 With fretty chervil, look, and fresh wind shakes
 Them; birds build—but not I build; no, but strain,
 Time's eunuch, and not breed one work that wakes.
 Mine, O thou lord of life, send my roots rain.

[Leizar adarrak] (1886?)

Nire begiak dakustenetik, munduan zear ibilliz,
ez dau ezerk gogoa esnez gozatzan, ez deitso ezerk poesi sakona
ixurtzen zugatzen adarrak zerurantz sartzeak aiña.
Esaterako, leizar adarrak: naiz abenduko egun baten, sendo
bilduak, naiz orrazi guri ezeetan zabal
igoten eta abi barria zeru-goienean egiten.

Zerua ikutzen dabe eta danboliña jotan; zelan isasten daben
euren atzamarrak neguko zeru eskerga keetsua! Maiatzak
urdiña ta edur-zuria ditu areen artetik naastatzen, mendel eta izpi
berdeak: gure lur zaarraren leia da zeru zutara:
beronegaz sortzen gaitu.

[Zuzena zara bai, Jauna...] (1889)

Zuzena zara bai, Jauna, zugaz eztabaida
badagit; baiña, Jauna, zuzena da nire arrena be.
Zergaitik doaz bapo pekatarien bideak?, eta zergaitik porrotean
amaitu bear dau nik asten dodan guztiak?

Nire arerioa baziña, oi zu neure adiskide ori,
zelan apurtuko nindukezu, diñot, austen nozun
baino txarrago? Ai, mozkortiak eta griñen jopuak
geiago aurreratzen dabe orduren batzuetan nik baino,

Jauna, zure alde bizia eralgiten dodan onek baino. Ikusi munak eta sastrakak
orain, ze trinko orritsul, alkarri lotuta barrero
perraitz azkorrekaz, beitu, eta aize freskoak astintzen ditu.
Txoriak abia egiten dabe, baiña nik ez; ez, aalegiña baino ez,
aldiaren iren onek, eta ez dot lan bizirik sortzen.
Ur-zuloa eidazu, oi biziaren Jaun orrek, bialdu euria nire sustraietara.

TO R.B.

The fine delight that fathers thought; the strong
Spur, live and lancing like the blowpipe flame,
Breathes once and, quenched faster than it came,
Leaves yet the mind a mother of immortal song.
Nine months she then, nay years, nine years she long
Within her wears, bears, cares and combs the same;
The widow of an insight lost she lives, with aim
Now known and hand at work now never wrong.
Sweet fire the sire of muse, my soul needs this;
I want the one rapture of an inspiration,
O then if in my lagging lines you miss
The roll, the rise, the carol, the creation,
My winter world, that scarcely breathes that bliss
Now, yields you, with some sighs, our explanation.

R[obert] B[ridges]'i (1889)

Adimenak sortzen dauan atsegin bikañak;
soplete-sugarra lako ziri indartsu, bizi eta ziztagarriak,
bein arnasten dau, eta etorri baizen laster itzalita be,
abesti ezilkoraren ama egifik dau izten gogoa.

Bederatzi illabetez, ez, urtez, hederatzi urtez zear
baruan darabil, daroa, zainduz eta jagonez doa;
galduriko barne-ikustearen alargun bizi da, orain asmu
jakiñaz eta eskua onezkero okerbako lanean.

Sugar gozoa, musaren jabea, bear dau nire gogoak,
goi-arnasaren oldarra da nire irrika.
Oi, beraz, nire bertso traketsotan erritmo, garaitasun,
poz eta sorpenik aurkitu ez badaizu,
nire negu-munduak, orain zorion onen arnasaldiren bat ozta dauanak,
gure argibidea damotsu antsiren batzuekaz.

(Itzultzaile: Luis Arostegi)